


GREG GIZAJO BATEN EGUNKARIA - JEFF KINNEY



"Ospetsua izango naiz egunen batean; baina, oraingoz, hemen nabil, institutuan, ergel nazkagarri pila batek inguratuta".

Nerabea izatea gauza gogaikarria izan daiteke, benetan. Eta inork baino hobeto daki hori Greg Heffleyk: institutuan hasi berria da, eta mutil txakil hazi gabeak beraiek baino mutil handiago, maltzurrago eta bizarra egiten hasiekin nahasian dabilta korridoretan.

Gizajo baten egunkarian, Jeff Kinney idazle eta marrazkigileak bere antiheroia aurkezten digu. Gregek bere egunerokoan dioen moduan:

"Ez dezala inork pentsa 'Egunkari maitea, hau' eta 'Egunkari maitea, beste hura' ibiliko naizenik".

Eskerrak Greg Heffleyk esaten duena eta egiten duena oso bestelako gauzak diren!